donostiakultura.com

2012 UDAZKENA OTOÑO



VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA 1912-2012

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Urte osoan bizi dugu kultura.







Kutxaren Gizarte Ekintzatik babesa ematen diegu urtean zehar antolatzen diren kultura-jarduera eta ekitaldi ugariei. Kultura bultzatzea gure **gizarte-konpromisoaren** parte ere badelako.

kutxa gizarte ekintza

PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN
2012
UDAZKENA
OTOÑO

Babesleak
Patrocinadores:

kutxa gizarte ekintza

Europar programak
Programas europeos:

BALLET T

2012 _10,11,12

URRIA
OCTUBRE

Urria **02** Octubre
28 **SMASH ENSEMBLE** / M
MUSIKAGILEAK

Urria **03-07/10-14** Octubre
06 **BITS** / A T
TRICICLE

Urria **17** Octubre
30 **KRATER ENSEMBLE** / D
MUSIKAGILEAK

Urria **20** Octubre
08 **HARRIA** / A T

Urria **21** Octubre
18 **LIBREA NINÇANA** / D
ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE ELK.

Urria **23** Octubre
32 **RAPHAEL:**
LO MEJOR DE MI VIDA / M

Urria **24** Octubre
34 **ELEFTHERIA ARVANITAKI**
& BAND / M

Urria **25** Octubre
36 **OSKARBI** / M

Urria Octubre **27-02** Azaroa Noviembre
60 **FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXIII. ASTEA**
XXIII SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR / Z C

AZAROA
NOVIEMBRE

Urria Octubre **27-02** Azaroa Noviembre
60 **FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXIII. ASTEA**
XXIII SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR / Z C

Azaroa **03,04,07** Noviembre
10 **SOINUJOLEAREN SEMEA**
EL HIJO DEL ACORDEONISTA / A T
TANTTAKA TEATROA

Azaroa **09** Noviembre
38 **CRAIG FINN,**
PATTERSON HOOD &
WILL JOHNSON / M

Azaroa **10** Noviembre
40 **CALEXICO**

Azaroa **13-18** Noviembre
12 **PARECIDO NO ES LO MISMO** / A T
FAEMINO Y CANSADO

Azaroa **20** Noviembre
42 **ESCUDERO MAISUAREN OMENEZ**
HOMENAJE AL MAESTRO ESCUDERO / M
CLASSIC

Azaroa **21** Noviembre
44 **GINO PAOLI & DANILO REA:**
DUE COME NOI CHE... / M

Azaroa **24, 25** Noviembre
20 **LA ÚLTIMA CANCIÓN** / D
MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Azaroa **26** Noviembre
46 **ORQUESTA MUSIKENE** / M

Azaroa **29** Noviembre
48 **WIM MERTENS PIANO TRIO** / M

ABENDUA
DICIEMBRE

Abendua **01** Diciembre
50 **CORIZONAS** / M

Abendua **02** Diciembre
52 **XIBEROKO SUTONDOAN** / M
ODOL BERRIA, ALTZÜKÜTARRAK,
NIKO ETXART

Abenduak **12** Diciembre
54 **THE KING GOSPEL CHOIR: MERRY**
CHRISTMAS & CIVIL RIGHTS / M

Abendua **13** Diciembre
22 **ATALAK XV** / D
DANTZAZ KONPAINIA

Abendua **14** Diciembre
24 **FRAGMENTS** / D
SHARON LAVI

Abendua **15** Diciembre
14 **AGUR BARREZ** / A T
TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Abendua **17** Diciembre
62 **QUE LEVANTEN LA MANO**
LAS ESCUELAS ATZEGIZALES / Z C

Abendua **28** Diciembre
56 **LUIS EDUARDO AUTE** / M

Abendua **30** Diciembre
58 **GORKA KNÖRR** / M

ANTZERKIA

Udazkeneko programazioa indartsu dator udako jarduera biziaren ondoren. Victoria Eugenia Antzokia etengabe ari da mugitzen eta garatzen, gaur egungo garaiak kontuan izanik. Hain zuzen ere horregatik, berrikuntza ugariko programazio bat prestatu dugu. Berrikuntzarik garrantzitsuena **Bernardo Atxaga**ren ***Soinujolearen semea*** obraren koprodukzioa da. Lehen aldiz, hiru lurraldeetako antzoki nagusiak elkartu gara, sortzaileak babestu eta euskal antzerkia finkatzen laguntzeko, elkarrekin ekoitziz eta lankidetza-bide berri bat hasiz. Bilboko Arriaga Antzokia, Gasteizko Principal Antzokia, Victoria Eugenia Antzokia eta **Tanttaka Konpainia** -besteekin batera, hau ere euskara eta gaztelaniazko bertsio bikoitza eszenaratzeko koproduktore eta arduradun- abentura hain beharrezko honen egileak gara. Beste berrikuntza bat ***Harria*** proiektua da, kantua, musika, dantza eta herri kirolak nahasten dituen ikuskizuna, izen bereko liburuaren aurkezpenaren barruan kokatua, zeinak harrijasotzaileen munduari omenaldia egiten baitio eta, ikuskizunean bertan, erakustaldi berezi bat jasotzen baitu. Behin ere ikusi gabeko Victoria Eugenia batez gozatuko dugu. Urri hasieran, ikusleek asko maite duten konpainia bat aurkituko dugu, **Tricicle**, bere lan berria aurkeztuko diguna, ***Bits***. Gure artean izango dira haiek bezain ezagunak diren **Faemino y Cansado** ere, azaro erdialdera.

TEATRO

La programación de otoño continúa con fuerza después de una intensa actividad estival. El Teatro Victoria Eugenia está en movimiento y en evolución permanente habida cuenta los tiempos en los que vivimos. Precisamente por ello, hemos elaborado una programación con novedades importantes, la más importante, es la coproducción de ***El hijo del acordeonista*** de **Bernando Atxaga**. Por primera vez, los tres teatros de referencia de cada territorio nos hemos unido para coproducir juntos y comenzar un camino de colaboración que apoye a los creadores y que ayude a la consolidación de una dramaturgia vasca. El Teatro Arriaga de Bilbao y el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz junto con el Teatro Victoria Eugenia y Tanttaka Konpainia, también coproductora y responsable de la puesta en escena en su doble versión en euskera y castellano, somos los artífices de esta nueva aventura. Novedad también es la presencia del proyecto ***Harria***: espectáculo multidisciplinar que fusiona canto, música, danza y deporte rural, enmarcado en la presentación de un libro homónimo que homenajea el mundo de los harrijasoitzailes, con una demostración especial incluida en el mismo espectáculo. Veremos y disfrutaremos de un Victoria Eugenia insólito. A principios de octubre nos encontraremos con una compañía muy querida por el público, **Tricicle**, que nos presentará su nueva creación, ***Bits***. También contamos con los no menos populares **Faemino y Cansado** a mediados de noviembre.



Urria Octubre

3-7, 10-14

BITS

TRICICLE

03, 04, 05,10, 11, 12: **20:00**
06,13: **20:00 + 22:30**
07,14: **18:30**
03, 04, 10, 11: **30 € / 25 € / 20 €**
05, 06, 07, 12, 13, 14: **35 € / 30 € / 25 €**

Tricicle BITS bihurtu da, eta BITS gisa, milimilimilisegundo batean edo lehenago, saguari klik eginda, aldatu egiten dute esketxa, gaia, dekoratua, pertsonaiak, betaurrekoak, sexua; eta zenbait ezagun zahar ere berreskuratzen dituzte beren buruak omentzeko eta azken 32 urteotan duten grina gaizto bat areagotzeko: denik eta Minutuko Gag Trinkotasun Handiena **(MGTH)** lortzea.
BITS, Tricicleren zortzigarren ikuskizuna, eta ziur asko berek sortzen duten azkena, ikuskizun digitala da, gag-kode trinarioan egina, **Joan Grácia**, **Paco Mir** eta **Carles Sans**-en arabera. Harrapazank!

Tricicle se han convertido en BITS y como BITS, en un milimilimilimilisegundo o menos saltan, a golpe de ratón, de sketch, de tema, de decorado, de personajes, de gafas, de sexo e incluso recuperan a viejos conocidos para hacerse un autohomenaje con el fin de aumentar una pasión enfermiza que les persigue desde hace 32 años: lograr la mayor Densidad de Gags por Minuto Posible **(DGMP)**.
BITS, octavo espectáculo de Tricicle y muy posiblemente el último de creación propia, es, según **Joan Grácia**, **Paco Mir** y **Carles Sans**, un espectáculo digital en código de gags trinario. ¡Ahí queda eso!

Urria Octubre
20

HARRIA

AIMAR IRIGOIEN
IDOIA ETXEBERRIA
URDAX MAGUNAZELAIA
KUKAI DANTZA KONPAINIA
ANDER LIPUS
ORTZI ACOSTA
AMAREN ALABAK
OREKA TX

12:30
Gonbidapenarekin Con invitación



***Harria* diziplina anitz biltzen dituen ikuskizuna** da; **kantua**, **musika**, **dantza**, **akrobaziak** eta **herri kirolak** bateratzen ditu, eta izen bereko liburuaren aurkezpenaren barruan kokatuta dago. Liburuak, omenaldi gisa, hainbat belaunalditako harrijasotzaileen historia jaso nahi du, haien familien bitartez. Aimar Irigoien, Idoia Etxeberria eta Urdax Magunazelaia harrijasotzaileak bere markak hausten saiatuko dira, kirol hau antzoki batean ikusteko aukera paregabe honetan.

Harria es un **espectáculo multidisciplinar** que fusiona **canto**, **música**, **danza**, **acrobacias** y **deporte rural**, enmarcado en la presentación del libro homónimo, que a modo de homenaje, recoge el legado y la historia de diferentes harrijasotzailes durante distintas generaciones a través de sus familias. Los harrijasotzailes Aimar Irigoien, Idoia Etxeberria y Urdax Magunazelaia intentarán batir sus marcas en una ocasión única para ver este deporte en un teatro.

Azaroa Noviembre
03,04,07

SOINUJOLEAREN SEMEA
EL HIJO DEL ACORDEONISTA

TANTTAKA TEATROA

03, 04: Euskaraz / 07: Castellano
20:00
22€/ 16€/ 10€





David eta Joseba txikitako lagunak dira. Haur izateari utzi berritan Davidek jakingo du aitak nazionalei lagundu ziela gerra zibilean. Frankismoaren aurkako borrokak liluratuta, batak arrazoi ideologikoengatik, emozionalengatik besteak, artean hasi berria zen ETAn sartzea erabakitzen dute, 70eko hamarkadaren hasieran. Ezkutuko borrokaldi labur eta trakets baten ondoren Frantzian erbesteratuko dira. Handik gutxira etorriko da Daviden desilusioa, eta aurrerago, ETA uztea, eta lagunari eta taldeari egindako traizioa. Espetxetik irten ostean, kideen artean zokoratuta dagoenez, Davidek Ameriketara joatea erabakiko du, bizitza berri bat hasteko asmotan. Hogeita hamar urte geroago Davidek Josebaren bisita jasoko du eta soinujolearen semeak, iraganean iskin egin nahi izan zien mamuei aurre egin beharrean gertatuko da.

Bernardo Atxagaren izen bereko eleberriaren egokitzapena antzerkirako.

David y Joseba son amigos desde la infancia. Apenas han dejado de ser unos niños cuando David descubre el colaboracionismo de su padre con los nacionales durante la guerra civil. Fascinados por el descubrimiento de la lucha antifranquista, deciden por razones ideológicas uno, emocionales el otro, militar en la incipiente ETA de comienzos de los 70. Tras un corto y torpe período de lucha clandestina, llega el exilio a Francia. Poco después el desencanto de David y más tarde, el abandono, la traición al amigo y al colectivo. Tras salir de la cárcel, apestado entre los suyos, David se va a América a empezar una nueva vida. Treinta años más tarde, David recibe la visita de Joseba, y el hijo del acordeonista tendrá que enfrentarse a los fantasmas de los que quiso huir.

Adaptación teatral de la novela homónima de **Bernardo Atxaga.**

Azaroa Noviembre

13 - 18

PARECIDO NO ES LO MISMO

FAEMINO Y CANSADO

20:00

22 € / 16 € / 10 €



Faemino y Cansado berriz ere Victoria Eugenia Antzokian *Parecido no es lo mismo* ikuskizunarekin, beste koxka bat estuago umore-bikote ezagunaren planteamendu estetiko eta ideologikoetan. Tituluak ez du inor engainatzen, *Parecido no es lo mismo* horixe da, hain zuzen, **antzeko ikuskizun bat**, antzekoa **baina ez berbera**. Testuak aldatu dira; zorionez, ez dira berberak; antzekoak bai, agian, baina ez berdinak.

Faemino y Cansado vuelven al Teatro Victoria Eugenia con su *Parecido no es lo mismo*, una nueva vuelta de tuerca a los planteamientos estéticos e ideológicos del popular dúo humorístico. El título no llama a engaño, *Parecido no es lo mismo* es justamente eso, **un espectáculo parecido, sin ser lo mismo**. Lo que cambia son los textos, que afortunadamente no son los mismos, quizá parecidos, pero no iguales

Abendua Diciembre

15

AGUR BARREZ

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

16:00 + 18:00

9€ / 7€ / 5€



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek ospakizunez beteriko urtea dute 2012 hau, martxoan bete baitituzte berrogei urte euskarazko pailazotzari hasiera eman ziotela. Eta urte guzti horietan hauxe izan dute eginkizun nagusia: barre egin araztea. Euskal pailazotzaren ildo nagusiak finkatu ondoren, beste belaunaldiei bide uzteko garaia heldu zaie. Ez diote pailazo izateari utziko, izaera horrek betirako markatzen duelako. Baina lehenengo lerrotik albo batera joango dira Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrei txanda emanez.

Txirri, Mirri eta Txiribitonek **berrogei urteurreneko ospakuntzen errematea** jarriko lukete beren esketxik onenak antzezten eta abestirik famatuenak publikoarekin batera kantatzen.

Año pleno de celebraciones este de 2012 para los payasos Txirri, Mirri y Txiribiton, que en marzo cumplieron cuarenta años desde que inauguraran el clown en euskera. En todos esos años, hacer reir ha sido su principal cometido. Tras dejar bien asentadas las líneas maestras del espectáculo de payasos en euskera, ha llegado el momento de dar paso a otra generación. No es que dejen de ser payasos, ese carácter queda impreso para siempre. Pero se retiran de la primera línea, dejando vía libre a Txirri, Mirri eta Txiribiton junior.

Txirri, Mirri y Txiribiton ponen fin a las **celebraciones del cuarenta aniversario** con sus mejores sketchs y cantando junto con el público sus canciones más conocidas.

DANTZA

Antzerkiari buruzko zatian aipatutako garapena dantzan ere gertatu da, eta are indartsuago, agian. 2008an hasi ginen dantza-ikuskizunak ekoizten **Malandain Ballet Biarritz**ekin batera. Ohitura bihurtzen ari da udazkenean sorkuntza berria aurkeztea. Oraingo honetan, ***La dernière chanson***, Frantziako kritikarien 2012ko sari handiaren irabazlea. Bi saioetan, Anette Delgado eta Dani Hernández-en parte-hartzeaz gozatzeko aukera izango dugu, hiru *pas de deux* klasiko aurkeztuko dizkiguten bi dantzari, **Kubako Ballet Nazional**eko lehenak. Victoria Eugenia Antzokiak eta Malandain Ballet Biarritzek **BALLET.T**ren bidez eginiko pedagogia- eta zabaltze-lana nabarmentzen dute. **Mugan zeharko zentro koreografikoa** da BALLET.T, eta tailerrak, master class-ak, solasak eta bestelako ekintzak prestatzen ditu ikusle berrien sormenari eta prestakuntzari zuzenduta, bai eta ikuskizunak ere. Hiruhileko beste ikuskizun garrantzitsu bat ***Librea ninçana*** da, **Ortzadar Euskal Folklore Elkartea**rena. Ez da lehen aldia sortzaileek euskal dantza tradizionalak proposatzen dituztena istorio garrantzitsuak kontatzeko. Oraingo honetan, Nafarroako Konkista. Bukatzeko, **Sharon Lavi** sortzaileak proposamen original bat aurkeztuko digu, ***Fragments***, tap dance garaikide baten estilo berri bat ezagutaraziko digun bidegurutze artistikoa.

Dantzaz Konpainiak **DantzaKlub** berri bat prestatu du, oraingoan gu dantza tradizionalaren mundura hurbil gaitezen, IkerFolken eskutik. Bilerak egingo dira artistekin, eta baita beste jarduera batzuk ere, antzokiko bertako Clubean. Era berean, Dantza Aretoan sormen-tailerrak eta dantza tradizionaleko ikastaroak izango dira, debate, master class eta bestelako ekintza batzuekin batera. Horrela, aztarna bat sortu nahi duen ekintza-panorama bat osatu dute antzokiarekin aktibo eta proaktibo diren dantza-zaleentzat.

DANZA

La evolución que comentamos en el apartado de teatro también sucede si cabe con más fuerza en el mundo de la danza. Comenzamos en 2008 coproduciendo espectáculos de danza con **Malandain Ballet Biarritz**. Se está convirtiendo en tradicional la presentación cada otoño de la nueva creación. En esta ocasión ***La última canción***, ganadora del Gran Premio 2012 de la Crítica en Francia. En ambas sesiones, tendremos el lujo de contar con la participación de Anette Delgado y Dani Hernández, primeros bailarines del **Ballet Nacional de Cuba** que presentarán tres *pas de deux* clásicos. El Teatro Victoria Eugenia y Malandain Ballet Biarritz destacan su labor pedagógica y de difusión de la danza a través de **BALLET.T, Centro Coreográfico Transfronterizo** que desarrolla talleres, master clas, coloquios y otras actividades dirigidas a la creación y formación de nuevos públicos además de la exhibición de espectáculos. Otro espectáculo muy importante este trimestre es ***Librea ninçana*** con **Ortzadar Euskal Floklore Elkartea**. No es la primera vez que los creadores desarrollan propuestas de danza tradicional vasca para contar historias importantes, en esta ocasión, la Conquista de Navarra. Finalizaremos con una propuesta original del creador **Sharon Lavi**, que presentará ***Fragments***, encrucijada artística que nos dará a conocer un nuevo estilo de un tap dance contemporáneo.

Dantzaz Konpainia prepara un nuevo **DantzaKlub**, en esta ocasión para acercarnos al mundo de la danza tradicional de la mano de **IkerFolk**. Habrá encuentros con artistas, y otras actividades también en el Club del propio teatro. A su vez, en la Sala de Danza los talleres de creación y los cursos de danzas tradicionales junto con debates, master class y otras actividades completan un panorama de actividades que pretende crear un poso de aficionados a la danza, activos y proactivos con el propio teatro.

Urria Octubre
21

LIBREA
NINÇANA

ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE ELKARTEA

20:00
15 € / 12 € / 8 €



"Memoriaren mapa ostu digute. Eta halere, galduta gabiltzanik ezin esan. Hamaika kontu azaldu digute, nondik gatozen ahantz dezagun. Eta halere, nora goazen argi dugu. Beste iragan bat asmatu digute, oraina neurri horretara molda dezagun, etorkizuna neurri horretan eraiki dezagun. Armen indarrez hartu gintuzten, odola isuri arazi, zapaldu. Ez dugu zer ospatu, baina badugu zer esan. Ez gara iragana, **arbasoen memoria soilik aldarrikatzen ari**; ez da joandako mendeen malenkonia, etorkizun-irrika baizik. Geurea denez geuk, gure nahierara, eraikiko dugun etorkizunaren irrika, alegia".

"Nos han robado el mapa de la memoria. Y aún así, no podemos decir que estemos perdidos. Nos han enseñado mil asignaturas para que olvidemos de dónde venimos. Y aún así tenemos claro a dónde vamos. Nos han inventado otro pasado, para que adecuemos el presente y para que construyamos el futuro a su medida. Nos invadieron por la fuerza de las armas, vertieron nuestra sangre y nos oprimieron. No tenemos nada que celebrar, pero sí qué decir. Nos somos el pasado, **reivindicamos la memoria de nuestros antepasados**; no es la melancolía de los siglos pasados, sino el deseo de un futuro. Es nuestro y, por tanto, nosotros lo construiremos según nuestros designios".

Azaroa Noviembre
24, 25

LA ÚLTIMA CANCIÓN

MALANDAIN BALLET BIARRITZ

20:00
30 € / 22 € / 16 €

Victoria Eugenia Antzokiak eta Malandain Ballet Biarritz-ek Anette Delgado eta Dani Hernandez gonbidatu dituzte, **Kubako Ballet Nazional**eko lehen dantzariak, eta hiru *pas de deux* klasiko aurkeztuko dituzte: *Muñecos, Don Quijote* eta *Diana y Acteón*. Malandain Ballet Biarritzek hiru pieza aurkeztuko ditu: *L'Aprés-midi d'un faune*-ko preludioa*, Le spectre de la rose,* eta taldearen azken lana, *Une dernière chanson*, **Frantziako Kritikaren 2012ko Sari Handia**ren irabazlea.

El Teatro Victoria Eugenia y Malandain Ballet Biarritz, invitan a Anette Delgado y Dani Hernandez, primeros bailarines del **Ballet Nacional de Cuba**, que presentarán tres *pas de deux* clásicos; *Muñecos*, *Don Quijote* y *Diana y Acteón*. Por su parte, Malandain Ballet Biarritz presentará tres piezas, *Preludio a la siesta de un Fauno*, *El espectro de la rosa* y, su última creación, *La última canción*, ganadora del **Gran Premio 2012 de la Crítica en Francia**.



© Olivier Houeix

Abendua Diciembre

13

ATALAK XV

DANTZAZ KONPAINIA

21:00

6 €



© Usoz

Atalak XV ikuskizunak ematen dio hasiera denboraldi berriari gure dantza-laborategi honetan: DantzaKlub espazioan, non ikusleak eta sorkuntza eskutik baitoaz agertoki ezin hobe batean. Oraingo honetan, dantza tradizionalaren mundura hurbilduko gara **IkerFolk**en eskutik, berak emango baitie bide gure dantzariek sortutako zenbait koreografiari.Tradizioa abiapuntu, eta dantza garaikidea proba-saiorako hizkuntza: horra osagai funtsezkoak laborategi honetarako, non ikusleekin elkartzeak markatzen baitu sorkuntza-lanen nondik norakoa.

Atalak XV marca el inicio de una nueva temporada en nuestro laboratorio particular de danza: DantzaKlub, un espacio donde el público y la creación se dan la mano en un espacio inmejorable. En esta ocasión, nos acercaremos al mundo de la danza tradicional de la mano de **IkerFolk**, quien dará paso a una serie de coreografías creadas por nuestros bailarines. La tradición como punto de partida y la danza contemporánea como lenguaje para el ensayo y la prueba, ingredientes esenciales para un laboratorio donde el encuentro con el público marca el desarrollo de las creaciones.

© Usoz

Abendua Diciembre

14

FRAGMENTS

SHARON LAVI

20:00

22 € / 16 € / 10 €



*Fragments*ek desfragmentatu egiten du sortzailearen arte-kodea eta beraren eraginak. Lanak haren ibilbidearen oinarriak hartzen ditu; pertsona, sortzaile eta kulturgile gisa egindako ibilbidearenak. *Fragments* arte-bidegurutze bat da, hainbat adierazpide erritmiko eta dinamiko arakatzen dituena eta, aldi berean, *tap dance* garaikide, adierazkor eta poetiko baten estilo berri bat ezagutarazten duena.

Musika eta dantza biltzen dituen egitasmo honek sortzailearen ibilbide pertsonala du oinarri, eta *tap dance* da, musika eta erritmoa, estilo eta ezaugarri berdingabeak dituena. Tel Aviv eta Bartzelona artean sortu zen Sharon Lavi konpainia; **jatorrizko eta era askotako musika nahasten du koreografia-hizkuntza berritzaile eta ikusizkoarekin**; perkutsio-dantzariak eta Mediterraneoaren bi aldeetako musikariak higitu eta hunkitu egiten dira, elkarrekin jardun eta partekatu egiten dute.

Fragments desfragmenta el código artístico del creador y sus influencias. El trabajo abarca los fundamentos básicos de su trayectoria personal, creativa y cultural. *Fragments* es una encrucijada artística que explora las diferentes expresiones rítmicas y dinámicas y, al mismo tiempo, da a conocer un nuevo estilo de un tap dance contemporáneo, expresivo y poético.

Este proyecto particular de música y danza, basado en la trayectoria personal de su creador, es tap dance, música y ritmo, en un lenguaje con estilo único y sello propio. Creada entre Tel Aviv y Barcelona, la compañía Sharon Lavi mezcla **música original** y **versátil** con un **lenguaje coreográfico innovador** y visual, mientras bailarines de percusión y músicos de ambos lados del Mediterráneo se mueven y conmueven, interactúan y comparten.

MUSIKA

Gaur egun, eskertzekoak eta konpentsatzekoak dira kulturaren kontsumoa eta gozamena babesten dituzten ohiturak. Gorestekoa da ikusleak zuzeneko ikuskizun bat bezain gauza tradizionalera -eta, azkenaldian, hain arraroa- joaten jarraitzea, aisialdiaz gozatzeko eta, beharbada, pertsona gisa aberasteko. Kultura eszenikoa -musika, batez ere- krisiaren eta bolada digitalaren erasopean dago. Taldean arteaz gozatzea oso ekintza soziala da eta, garrantzirik gabea eman dezakeen arren, badu, egiaz, garrantzia; horixe baietz.

Victoria Eugenia Antzokia eta Donostia Kultura ikusleei eta artistei egokitzen saiatzen dira, beti bezala programazio askotariko bat prestatuz eta programazio hori kalitatezkoa izan dadin saiatuz: oso ikusle desberdinei zuzendua, balio eta joera berriak ezagutzeko aukera emango duena eta, aldi berean, eskarmentu handiko hainbat artistaren ibilbide zabal eta aberatsa nabarmentzea eta baloratzea ahalbidetuko duena.

Bereziki pozgarria egiten zaigu etorriko diren gonbidatu hauek nabarmentzea: **Calexico**, **Corizonas**, **Finn**, **Patterson** eta **Johnson**, euren gaurkotasuna eskainiko baitigute **Indie**-aren eta **Pop**-aren munduen barruan.

Horrez gain, atsegingarria da guretzat aparteko izen hauek ere kontuan hartu ahal izatea: **Aute**, **Raphael**, **Eleftheria Arvanitaki**, **Mertens**, **Gino Paoli** eta **Danilo Rea**, **Gorka Knörr** eta **Oskarbi**.

Harro gaude gure antzokian **Escudero** musikagileari eta **Dominika Etxart**-i omenaldia egiteaz. Eta gure programazioan euskal musikagileen obrak interpretatzeaz, **Musikagileak**-ek antolatutako bi jardunaldietan. Bai eta **Musikene**-ko **Orkestra Sinfonikoa** gure artean izateaz ere.

MÚSICA

En estos tiempos que corren, es de agradecer, reconocer y compensar los hábitos que preservan el consumo y disfrute de la Cultura. Es de alabar que el espectador recurra a algo tan tradicional –y, últimamente, tan insospechado- como la asistencia a un espectáculo en directo para disfrutar de su ocio y, probablemente, enriquecerse como persona. La cultura escénica –la música especialmente- está sufriendo el acoso de la crisis y de la oleada digital que nos invade. Participar en un acto tan social y humano, como es el disfrute del arte en un contexto colectivo nos puede parecer algo sin importancia, pero, en realidad, la tiene; por supuesto que sí.

El Teatro Victoria Eugenia y Donostia Kultura se esfuerza en corresponder a público y artistas manteniendo una programación que, como siempre, es variada, pretende ser de calidad, para un tipo muy diverso de públicos y que ofrezca la posibilidad de descubrir nuevos valores y tendencias y, al mismo tiempo, valorar y destacar las trayectorias dilatadas y ricas de algunos veteranos.

Nos resulta especialmente satisfactorio destacar la presencia de nombres como **Calexico**, **Corizonas**, **Finn**, **Patterson** y **Johnson**, que nos ofrecen su contemporaneidad en el mundo del **Indie** y del **Pop**.

Pero también nos resulta grato contar con nombres señeros como los de **Aute**, **Raphael**, **Eleftheria Arvanitaki**, **Mertens**, **Gino Paoli** y **Danilo Rea**, **Gorka Knörr** y **Oskarbi**.

Nos sentimos orgullosos de que en nuestro teatro se homenajee al maestro **Escudero** y a **Dominika Etxart**. Y que en nuestra programación se interpreten obras de compositores vascos en las dos jornadas organizadas por **Musikagileak**. También de contar con la **Orquesta Sinfónica de Musikene**.

Urria Octubre

02

SMASH ENSEMBLE

MUSIKAGILEAK

CLUB / 20:00

3 €

Clara Novakova (flauta flauta), **Héctor Abella** (klarinetea clarinete), **Pablo López** (pianoa piano)

Smash Ensemble Europako gizarte-kultura berriaren ordezkari bat da. Maila goreneko musikariek osatzen dute: Espainia, Frantzia, Eskozia, Txekiar Errepublika, Mexiko, Hungaria eta Alemaniako musikariek, hain zuzen ere; horra taldean den truke sozio-kultural handiaren froga bat. Smash Ensemble talde egoiliarrak **SMASH** jaialdia sortu du, **musika garaikideko jaialdia**. Ez du batere errepertorio arrunta, eta arte-joera desberdinak integratzeak eraman du Europako talderik gehienen bidetik ez ibiltzera; hartara, izaera osatu eta berezia lortu du.

Smash Ensemble es una representación de la nueva cultura social europea, siendo un grupo que se enriquece con músicos de primer nivel procedentes de países como España, Francia, Escocia, República Checa, México, Hungría y Alemania; una prueba del alto intercambio sociocultural que existe hoy en día. Smash Ensemble es el grupo residente y creador del **Festival Internacional SMASH de música contemporánea**. Su repertorio poco común y la integración de diferentes tendencias artísticas lo han llevado a desmarcarse de la mayoría de los grupos europeos, teniendo así un sello musical íntegro y particular.



Urria Octubre

17

KRATER ENSEMBLE

MUSIKAGILEAK

CLUB / 20:00

3 €

Krater Ensemble 2008an sortu zen, **Aurélio Edler-Copes** musikagileak eta **Iker Sánchez** zuzendariak bultzatuta. Gaur egungo musikarekiko ardura duten hamar bakarlariz osatuta dago, eta taldearen filosofia nagusia errepertorio berriak bilatzea eta ikertzea da, eta baita euren belaunaldiko beste musikagileekin batera lan egitea ere.
Orain arteko ibilbidean, Krater Ensemblek honako hauetan parte hartu du: Donostiako Musika Hamabostaldian, Musika Garaikideko Zikloan; Bilboko BBVA Musika Garaikideko Zikloan; Bernaola jaialdian; Musikaste, Euskal Musikaren Zirkuituan; bi kontzertu-denboraldi egin ditu Donostiako Tabakalera Arte Zentroarekin batera; Madrilgo Auditorio Nazionalean jo du, MusicadHoy-ren 2011-2012 denboraldian; eta Erromako Real Academia de España-n, 2011n.

Krater Ensemble nace en el 2008, impulsado por el compositor **Aurélio Edler-Copes** y el director **Iker Sánchez**, está formado por una decena solistas comprometidos con la música de hoy y tiene como principal filosofía la búsqueda y la investigación de nuevos repertorios y la colaboración estrecha con compositores de su generación.
En su trayectoria, Krater Ensemble ha participado en el Ciclo de Música Contemporánea de la Quincena Musical de San Sebastián, el Ciclo de Música Contemporánea BBVA de Bilbao, Festival Bernaola, Musikaste, Circuito de la Música Vasca; ha realizado dos temporadas de conciertos en colaboración con en el Centro de Arte Tabakalera, de San Sebastián y ha actuado en el Auditorio Nacional de Madrid, dentro de la temporada 2011-2012 de MusicadHoy, y en la Real Academia de España en Roma, en 2011.



Xabier Gil (biolina violín)
Rosa San Martín (biola viola)
Esti Oraá (biolontxeloa violonchelo)

Urria Octubre
23

RAPHAEL: LO MEJOR DE MI VIDA

20:00
56 € / 46 € / 36 €

Raphael (ahotsa voz)
Juan Pietranera (pianoa piano)

Raphael-ek ahots harrigarria eta interpretatzeko modu bere-berea izan ditu arma nagusi urtea joan urtea etorri musikaren munduan puntakoen artean irauteko, eta leku berezi bat lortu du hainbeste arrakastaren ondoren. Espainieraz egindako musika modernoan aitzindari, Raphael-ek **kanta ahaztezinak** ditu **errepertorioan**; orain, modu original eta oso pertsonal batean aurkeztu nahi ditu, pianoa eta ahotsa soilik, halaxe sentitzen baita ondoen agertokian, halaxe defendatzen baititu ondoen bere kantak.

La voz prodigiosa de Raphael y su particular manera de interpretar han sido sus principales armas para poder permanecer, año tras año, como figura indiscutible de la música, conquistando un lugar privilegiado por sus muchos éxitos cosechados. Pionero absoluto de la música moderna en español, Raphael cuenta en su haber con un **repertorio de canciones inolvidables** que ahora quiere presentar con un sello genuino y muy personal, a piano y voz, que es como mejor se siente en el escenario y como mejor defiende sus canciones.





Urria Octubre
24

ELEFTHERIA ARVANITAKI & BAND

20:00
34 € / 28 € / 25 €

Eleftheria Arvanitaki (ahotsa voz), **Alexandros-Drakos Ktistakis** (bateria batería), **Theo Goutsidis** (gitarra elektrikoa, akustikoa guitarra eléctrica, acústica), **Giannis Kyrimkyridis** (teklatuak teclados), **Thomas Konstantinou** (Oud, Lute, Bouzouki, Mandolina, Tsoumbouak Tsoumbous)

Eleftheria Arvanitaki greziar kantaria da Europako panoraman emakume-ahots interesgarrienetako bat, bere gaitasun bokal paregabeei esker, eta Greziako musika tradizionala eta gaur egungoa konbinatzeko gauza delako; horri esker, puntako leku bat lortu du world music-aren eremuan. Musikaz duen ikuspegi irekia ageri du mundu osoan ospetsu bihurtu diren hainbat artistarekin egindako lanetan: **Cesaria Evora**, **Teofilo Chantre**, **Dulce Pontes**, **Amaral**, **Carlos Nuñez**, **Ismael Lo**, **Ara Dinkjian** eta **Arto Tuncboyacian**-ekin, besteak beste.

La cantante griega Eleftheria Arvanitaki es una de las voces femeninas más interesantes del panorama europeo, gracias a sus extraordinarias cualidades vocales y a su capacidad para combinar la música tradicional y contemporánea de Grecia, lo que le ha permitido ocupar un lugar prominente en el terreno de la world music. Su concepción tan abierta de la música se muestra en sus colaboraciones con artistas aclamados mundialmente como **Cesária Évora**, **Teófilo Chantre**, **Dulce Pontes**, **Amaral**, **Carlos Núñez**, **Ismael Lo**, **Ara Dinkjian** y **Arto Tuncboyacian**.

Urria Octubre
25

OSKARBI

20:00
15 €

Iñaki Maritxalar (ahotsa eta gitarra voz y guitarra)
Joxe Luix Treku (ahotsa eta taldeko koordinatzailea voz y coordinación del grupo)
Carlos Ruiz (ahotsa eta akordeoia voz y acordeón)
Maite Aizkorre, **Bakartxo Maritxalar**, **Beronika Ondikola** (ahotsa voz)
Gontzal Iñarra (flauta eta txirula flauta travesera y flauta)
Mari Jose Vergara (teklatuak teclados)
Diego Vera (perkusioa percusión)

Oskarbi, 1966. urtean sortutako euskal talde historikoak, ***Xirimiri Lasturko Milia***, bere azkeneko diskoa aurkeztuko du Victoria Eugenia Antzokian. Abesti berriekin batera, taldearen kantu ezagunetaz ere gozatzeko aukera paregabea izango da honakoa.

El histórico grupo vasco Oskarbi, creado en 1966, presentará su último disco, ***Xirimiri Lasturko Milia***, en el Teatro Victoria Eugenia. Será una ocasión excepcional para disfrutar su último trabajo y de sus canciones más conocidas.









Azaroa Noviembre

09

CRAIG FINN, PATTERSON HOOD & WILL JOHNSON

20:00

20 €

Craig Finn, Patterson Hood eta Will Johnson hegoaldeko rock-aren eta **country rock**-aren pertsonaia esanguratsuenetako hiru dira. Bakoitzak bere aldetik musika-ibilbide oparoa izan dute, eta bira honetarako indarrak batzea erabaki dute. Bertan, Georgiatik Texasera doan musika-ekosistemako soinu benetakoak eskaintzen dituzte.

Craig Finn, Patterson Hood y Will Johnson son tres de las más destacadas figuras del **country rock** y del rock sureño, que han desarrollado por su cuenta unas interesantes carreras musicales y han decidido unir sus esfuerzos para esta gira, en la que ofrecen los sonidos más genuinos de ese ecosistema musical que abarca desde Georgia hasta Texas.

Azaroa Noviembre

10

CALEXICO

20:00

34 € / 27 € / 21 €





Joey Burns (ahotsa, gitarra voz, guitarra), **John Convertino** (bateria, perkusioa batería, percusión), **Paul Niehaus** (pedal steel, gitarra guitarra), **Jacob Valenzuela** (teklatuak, tronpeta, bibrafonoa teclados, trompeta, vibráfono), **Michael Carbajal** (tronpeta trompeta), **Sergio Mendoza** (akordeoia, gitarra, sintetizadoreak, tronpeta, bibrafonoa acordeón, guitarra, sintetizadores, trompeta, vibráfono), **Chris Giambelluca** (baxua bajo)

Calexico Tucson-eko (Arizona) musika talde anitz eta askotariko bat da, hainbat eragin biltzen dituena: country, indie rock, espainiar jatorriko musika eta jazza. Sei album argitaratu dituzte, eta zuzenean grabaturiko DVD bat. Gainera, maila handiko artistekin jo dute; besteak beste, **Andrew Bird**, **Neko Case**, **Amos Lee**, **Nancy Sinatra**, **Glen Hansard**, **Depedro**-rekin. Argitaratu berri dute ibilbide osoko kantak biltzen dituen lan bat, ***Road to Atlas***, eta birak haien lan arrakastatsu ***Carried to Dust***eko errepertorioa du euskarri nagusi.

Calexico es un colectivo musical muy diverso de Tucson (Arizona) que amalgama influencias de country, indie rock, música de raíz española y jazz. Han publicado seis álbumes y un DVD en directo. Además han tocado y colaborado con artistas de la talla de **Andrew Bird**, **Neko Case**, **Amos Lee, Nancy Sinatra**, **Glen Hansard**, **Depedro** y muchos más. Acaban de publicar un recopilatorio de toda su carrera, titulado ***Road to Atlas***, y la gira se centra sobre todo en el repertorio de su aclamado ***Carried to Dust***.



Azaroa Noviembre
20

ESCUDERO MAISUAREN OMENEZ
HOMENAJE AL MAESTRO ESCUDERO

CLASSIC

20:00
17 € / 13 € / 11 €

Aurten **ehun urte** bete dira Francisco Escudero jaio zela (1912-2002) eta hori baliatuta, bera omentzeko kontzertua antolatu da. Ganbara musika eskainiko dute Francisco Escudero Kontserbatorioko irakasleek eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoan ari diren hainbat musikarik.

Concierto de música de cámara que homenajea el **centenario** del nacimiento del compositor Francisco Escudero (1912-2002). Los profesores del Conservatorio Francisco Escudero, junto con músicos de la Orquesta Sinfónica de Euskadi y la Orquesta Sinfónica de Navarra, rinden así tributo al maestro.

CLASSIC

ASOCIACIÓN DE CULTURA MUSICAL DE SAN SEBASTIÁN

Azaroa Noviembre

21

GINO PAOLI & DANILO REA: DUE COME NOI CHE…

20:00

34 € / 28 € / 25 €

Due come noi che… da Gino Paoli eta Danilo Rearen egitasmo berria; ahotsa eta pianoa biltzen dituen ikuskizun bat; Italiako autore-kanten interprete nagusietako bat eta gaur egungo pianojole sortzaileenetako bat. Ikuskizun paregabea, errepertorioa aldatu egingo baita kontzertutik kontzertura, inprobisazioaren itsasoan igeri, Rearen esku eskarmentudunei eta Paolik beti duen berritzeko gogoari esker. Arrakasta ahaztezinen autorea da bigarrena: ***Senza fine*** eta ***Sapore di sale***, besteak beste.

Due come noi che… es el nuevo proyecto de Gino Paoli y Danilo Rea, un espectáculo a base de voz y piano entre uno de los más grandes intérpretes de la canción de autor italiana y uno de los más creativos pianistas de la actualidad. Es un espectáculo único en el que el repertorio cambiará de concierto a concierto, navegando en el mar de la improvisación gracias a las experimentadas manos de Rea y al deseo de innovar que siempre acompaña a Paoli, autor de éxitos inolvidables como ***Senza fine*** y ***Sapore di sale***.





Azaroa Noviembre

26

ORQUESTA MUSIKENE

20:00

17 € / 13 € / 11 €

Arturo Tamayo (zuzendaria director)

Musikeneko Orkestra Sinfonikoa da Musikeneren hezkuntza-egitasmoa osatzen duten talde eta multzo handien ikurra. Musikeneko ikasleek osatua da oso-osorik; hartara, esperientzia profesional baliotsua lortzen dute, gonbidaturiko irakasle eta zuzendariekiko harremanei esker.

Hainbat emanaldi eskaini ditu Musikeneko Orkestra Sinfonikoak; nabarmentzekoak, besteak beste, 2004ko Musika Hamabostaldiko inaugurazio-kontzertua, Donostiako Kursaal Auditorioan; 2005eko Eguberri Kontzertua, ETBk grabatu eta transmititua; 2006an Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza Jaialdian parte hartu izana; eta 2007an Zaragozako Auditorioan. 2009ko otsailean, Pablo Sorozabalen *Juan José* opera estreinatu zuen kontzertu bertsioan Madrilgo Auditorio Nazionalean eta Donostiako Kursaalean emandako bi kontzertuetan.

La Orquesta Sinfónica de Musikene es el estandarte de los grandes conjuntos y formaciones que constituyen el proyecto educativo de Musikene. Está integrada en su totalidad por estudiantes de Musikene que de esta manera adquieren una valiosa experiencia profesional mediante el contacto con los diferentes profesores y directores invitados.

La Orquesta Sinfónica de Musikene ha tenido diferentes actuaciones, entre las que destacan el concierto inaugural de la Quincena Musical 2004 en el Auditorio Kursaal de Donostia, el Concierto de Navidad de 2005, grabado y retransmitido por ETB, su participación en el Festival Internacional de Música y Danza de Granada de 2006 y en el Auditorio de Zaragoza en 2007. En febrero de 2009 estrenó en versión concierto la ópera *Juan José* de Pablo Sorozábal con dos conciertos en el Auditorio Nacional de Madrid y en el Kursaal de Donostia.


Azaroa Noviembre
29

WIM MERTENS PIANO TRIO

20:00
34 € / 28 € / 25 €
Wim Mertens (pianoa, ahotsa piano, voz)
Tatiana Samouil (biolina violín)
Lode Vercampt (txeloa cello)

Wim Mertens gaur egungo konpositore harrigarrienetako bat da; obra zabalaren egilea, orkestra handientzako piezak zein filmen soinu-bandak egin ditu, eta estilo oso berea eta erraz ezagutzen dena du, batez ere ahotsaz lagunduta jarduten duenean, beste musika-tresna bat bezala erabiltzen baitu. Piano–bakarlari formatuan egindako bira arrakastatsua egin ondoren, Belgikako konpositore jenial hau trio baten barruan datorkigu berriro, azken lanak aurkeztera: ***Series of Ands - Immediate Given***s eta ***Open Continuum***.

Wim Mertens es uno de los compositores contemporáneos más sorprendentes, autor de una obra muy amplia que abarca desde piezas para gran orquesta hasta bandas sonoras de películas, y poseedor de un estilo muy personal y fácilmente reconocible cuando se acompaña con la voz, utilizada como si fuera un instrumento más. Tras una exitosa gira en formato de piano solo, el genial compositor belga vuelve en formato de trío, para continuar presentando sus últimos trabajos, ***Series of Ands - Immediate Givens*** y ***Open Continuum***.



© Alex Vanhee

Abendua Diciembre

01

CORIZONAS

20:00

17 €



Musikari eta belaunaldiari dagokionean bi talde ezberdinen (Arizona Baby eta Los Coronas) batura arraroa izanez hasi zen, baina, *Dos bandas y un destino* birarekin derrigorrezko hitzordu bihurtu dira Corizonas taldearen kontzertuak. Saio ugaritako edukiera beteta, eta egungo logika diskografikoari kontra eginez, 2011n diskoa atera zuten, ***The News Today***. Ikaragarria eta zoragarria, leheneratutako rocka eta funtsezko taldeen folk biziena eta berriena lantzen du.

Fernando Prado, **Javier Vielba**, **David Krahe**, **Ruben Marron**, **Roberto Lozano**, **Javier Vacas** eta **Yevhen Riechkalov** dira Corizonas.

Lo que comenzó como una insólita colisión de dos bandas tan dispares, musical y generacionalmente como Arizona Baby y Los Coronas, con la gira *Dos bandas y un destino* se ha convertido en apenas un año en la cita obligada y la gira del momento. Después de numerosos llenos y desafiando la actual lógica discográfica, en 2011 Corizonas sacó un álbum llamado ***The News Today***. Estremecedor y brillante, que pasa del rock regenerado al country o el folk más vital e innovador de bandas clave.

Corizonas son **Fernando Prado**, **Javier Vielba**, **David Krahe**, **Ruben Marron**, **Roberto Lozano**, **Javier Vacas** y **Yevhen Riechkalov**.

Abendua Diciembre

02

XIBEROKO SUTONDOAN
DOMINIKA ETXART-EN OMENEZ

ODOL BERRIA - ALTZÜKÜTARRAK - NIKO ETXART

19:00
15 €

Niko Etxart
(gitarra eta ahotsa
guitarra y voz)
Robert Larrandaburu
(ahotsa voz)
Jean Etxart
(ahotsa voz)
Dominique Earl
(gitarra eta ahotsa guitarra y voz)
Kiki Graciet
(harmonika eta ahotsa
armónica y voz)



Xiberoko Sutondoan izenburuarekin, tradizioz betetako musika ibilbidea aurkezten da. Niko Etxart eta bere familia ardatz hartuta, ikuskizunak Nikoren ibilbide oparoa errepasatzen du: Parisen *Odol Berriak* taldearekin egindako urteak; **Altzükütarrak** taldearen tradiziozko errepertorio zabala; eta bukatzeko, Niko Etxartek bakarlari gisa egindako konposizio anitzak.

Ikuskizun honek Dominika Etxart musikariari omenaldi sentitu bat egitea du helburu, Nikoren aita 2012ko martxoaren 17an zenduari. Aita-semeek elkarrekin kaleratu zuten *Eperra* (Elkar, 2004), disko oso polit bat, autore ezezagunek zein musikagile zuberotar handiek -**Ligeix**, **Etxahun**, **Attuli**, **Latxikana**- eginiko kanta tradizionalez osatua, bai eta bikoteak berak sortutako kantaz ere. Diskoak kanta zuberotarren funtsa gordetzen du eta, aldi berean, pauso garrantzitsu bat ematen du ahozko kulturaren transmisioari dagokionez.

Bajo el título ***Xiberoko Sutondoan*** *(Voces de Zuberoa)* se presenta un recorrido por la tradición musical zuberotarra. Apoyados en la figura de Niko Etxart y su familia, el espectáculo repasa su trayectoria musical desde sus inicios en París con el grupo Odol Berriak, pasando por el repertorio tradicional del grupo **Altzükütarrak** y terminando con las composiciones que Niko Etxart ha presentado durante su trayectoria en solitario.

Al mismo tiempo, esta actuación pretende rendir un sentido homenaje a la figura de Dominika Etxart, padre de Niko, fallecido el 17 de marzo de este 2012. Juntos publicaron *Eperra* (Elkar, 2004), un precioso disco compuesto de canciones tradicionales de autores a menudo desconocidos, de obras de grandes compositores suletinos (**Ligeix**, **Etxahun**, **Attuli**, **Latxikana**...) y de sus propias composiciones, que recoge la esencia de la canción tradicional zuberotarra, a la vez que supone un fuerte eslabón en la transmisión de nuestra cultura oral.

Abenduak Diciembre

12

THE KING GOSPEL CHOIR: MERRY CHRISTMAS & CIVIL RIGHTS


20:00

25 € / 20 € / 16 €

The King Gospel Choir omenaldi bat da: **Martin Luther King**, Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko borrokalari nekaezinari eskainitako omenaldia, Percy Gray zuzendari dela eta 20 lagunek osatutako atal erritmiko bat gehituta. Programan, Eguberrietako kanta aukeratu batzuk sartuko dira, ***Silent Night*** eta beste; gospeleko Gabon-errepertoriokoak, hala nola ***Go Tell It to the Mountains***, bai eta eskubide zibilen mugimenduko kanta erlijioso ezagunenetako batzuk ere, ikus-entzuleen gogokoenak, hala nola ***Oh, Happy Day!***

The King Gospel Choir es un homenaje al infatigable luchador por los derechos civiles en los Estados Unidos, **Martin Luther King**, bajo la dirección de Percy Gray y con el añadido de una sección rítmica, un total de 20 componentes. El programa incluirá una selección de canciones de Navidad del repertorio internacional, tipo ***Silent Night***, y del repertorio navideño del gospel, del estilo ***Go Tell It To The Mountains***, así como los temas religiosos más emblemáticos del movimiento de los derechos civiles y los favoritos del público como ***Oh, Happy Day!***





© Samira Ouf

Abendua Diciembre

28

LUIS EDUARDO AUTE

20:00

28 € / 24 € / 20 €

Musikagilea, poeta, abeslaria, zinegilea, margolaria. Beti prest, eta beti bere buruarekiko fidel. Trantsizioko testu eta melodiarik dotoreenetako batzuk eman zizkigun eta beste inork ez bezala interpretatu. Haren abesti arrakastatsuekin hainbat errezitaldi egin litezke, baina Eduardok interesa du konposatu dituen azken lanetako bat ere entzun dezagun. ***El Niño Que Miraba Al Mar*** obra da, *El Niño y el Basilisco* film laburrean oinarritua, zeina kontzertuan bertan proiektatuko baitute.

Compositor, poeta, cantante, cineasta, pintor. Siempre en la brecha y, lo que es más difícil, fiel a si mismo. Nos proporcionó algunos de los textos y melodías más lúcidos de la Transición y los interpretó como nadie. Sus éxitos darían para varios recitales, pero Eduardo tiene interés en que, también, escuchemos algo de lo último que ha compuesto. Se trata de la obra ***El Niño Que Miraba Al Mar***, basado en el corto *El Niño y el Basilisco*, que se proyectará durante el concierto.



© Iñigo Ibañez

Abendua Diciembre

30

GORKA KNÖRR

19:00

15 €

Gorka Knörr (gitarra eta ahotsa guitarra y voz), **Natxo Knörr** (pianoa piano), **Igor Telletxea** (bateria batería), **Mathieu Aranboure** (baxua bajo), **Ruben Caballero** (gitarra guitarra), **Satxa Soriazu** (teklatuak teclados), **Xabi San Sebastian** (gitarra eta ahotsa guitarra y voz)

Gorka Knörrek Donostiako Victoria Eugenia Antzokian aurkeztuko du, esklusiboki, **Antologia** disko-lan berria (Elkar, 2012). Diskoak musikariaren kantarik ezagunenak biltzen ditu, **Txalaparta**tik Lluis Llach-en **L'Estacara**, eta Gorka Knörrek interpretatuko ditu, Natxo anaiarekin eta lehen mailako musikari-talde batekin batera. Errepertorioa gure memoria kolektiboko abestiz osaturik dago, eta gure herrialdearen historia zati bat irudikatzen du.

Gorka Knörr presentará en exclusiva primicia en el escenario del teatro Victoria Eugenia de Donostia su nuevo trabajo discográfico **Antología** (Elkar, 2012), disco que recoge sus canciones más emblemáticas, desde **Txalaparta** a **L´Estaca** de Lluis Llach y que serán interpretadas por Gorka Knörr acompañado de su hermano Natxo y una banda de músicos de primer nivel. Un repertorio compuesto por una serie de canciones presentes en nuestra memoria colectiva que representan parte de la historia de este país.

Urria Octubre - Azaroa Noviembre

27-02

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXIII. ASTEA

XXIII SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR

Beste behin ere, Astea udazkenean dator, urteko fantasiazko eta beldurrezko filmik garrantzitsuenak estreinatzera. Oraingo honetan ere, Victoria Eugeniak bezala, **100 urte** betetzen dituen **Universal**-en inguruko ziklo batekin. Banpiroek presentzia berezia izango dute, erakusketa eta antzeko beste ekintza batzuekin batera; denen artean, generoaren urteroko festa honen programazioa osatzen dute.

La Semana vuelve una vez más en otoño con el estreno de las películas fantásticas y de terror más importantes del año. En esta ocasión también con un ciclo sobre la **Universal**, que cumple **100 años** como el Victoria Eugenia. Los vampiros tendrán una presencia especial, junto a exposiciones y otras actividades paralelas que integran la programación de esta gran fiesta anual del género. x





Abendua Diciembre

17

QUE LEVANTEN LA MANO LAS ESCUELAS ATZEGIZALES

19:30

4,5 €

Atzegik antolatutako lehiaketan hautatutako bideoen emanaldia, 2012 sentiberatze-kanpaina dela eta: *Que levanten la mano las escuelas atzegizales*. Bideo horiek adimen-urritasuna duten pertsonak eskola-alorrean txertatzeko jarrera positiboak islatzen dituzte, eta ikasle eta irakasleek eurek eginak dira.


Proyección de videos seleccionados en el concurso organizado por Atzegi con motivo de la campaña de sensibilización 2012, *Que levanten las manos las escuelas atzegizales*. Dichos vídeos reflejan actitudes positivas hacia la inclusión de las personas con discapacidad intelectual en el ámbito escolar y han sido realizados por el propio alumnado, profesorado...

GUNEAK ZONAS

1. GUNEA:
Beheko Jarlekuak, Platea, Palkoa eta Balkoiko aurrealdea
ZONA 1:
Patio de butacas, Platea, Palco y Delantera de Balcón

2. GUNEA:
Balkoia eta Mailadiko aurrealdea
ZONA 2:
Balcón y 1ª Delantera de Anfiteatro

3. GUNEA: Mailadia
ZONA 3: Anfiteatro



AGERTOKIA ESCENARIO

DESKONTUAK DESCUENTOS

SOCIOS
DONOSTIA KULTURA
BAZKIDEAK



Donostia Kultura Bazkideak



Kutxa Donostia Kultura

-% 10

Donostia Kulturak antolatutako **ikuskizun guztietan**

En **todos los espectáculos** organizados por Donostia Kultura

-% 10

Jaialdietan En los festivales
Baldintza
www.donostiakultura.com
webgunean ikusi
Ver condiciones en la web
www.donostiakultura.com

ORDU GAZTEA HORA JOVEN
+ Info: Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan.
+ Info: En las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal.

SARRERA SALMENTA VENTA DE ENTRADAS

VICTORIA EUGENIAKO LEIHATILA
TAQUILLA DEL VICTORIA EUGENIA
Tel. 943 481 818
11:30 –13:30 / 17:00 –20:00

ANTZOKI ZAHARREKO LEIHATILA
TAQUILLA TEATRO PRINCIPAL
Tel. 943 481 970
11:30 –13:30 / 17:00 –20:00

KUTXAREN BIDEZ
CANALES KUTXA

QUIOSCOS INTERNET KIOSKOAK
TELEKUTXA (943 001 200)
WWW.KUTXASARRERAK.NET



www.victoriaeugenia.com

DISEINUA DISEÑO: WWW.TGA.CC

3.000 ale / ejemplares - 0,53 € ale bakoitza / unidad